



IRIZPEN ZK.: D20-012

COVID-19AN POSITIBO GISA DIAGNOSTIKATUTAKO PAZIENTEEN DATUAK KOMUNIKATZEA

I

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2020ko apirilaren 17an Datuak Babesteko Euskal Bulegoan Osasun Sailaren kontsulta bat sartu zen posta elektronikoko bidez, goiburuan azaltzen den gaiari buruz.

Osasun-administrazioak honako hau dio bere idazkian:

«SARS-CoV-2ak (COVID-19) sortu duen pandemia dela-eta, 2020ko martxoaren 14an alarma-egoera dekretatu zen. 2020ko apirilaren 16an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen SND/344/2020 Agindua, apirilaren 13koa, salbuespen neurriak ezartzen dituen Osasun Sistema Nazionala indartzeko eta COVID-19ak eragindako osasun krisiari eusteko. Agindu horren HIRUGARREN apartatuak ezartzen du diagnostikoko zentro pribatuek nahitaez jakinarazi beharko dizkiotela osasun-agintaritzari, zein autonomia-erkidegotan dauden eta/edo zerbitzuak non ematen dituzten eta horretan eskumena duenari, proba diagnostikoak egindakoan jakin dituzten COVID-19 kasu baieztatuak.

Halaber, eginbehar hori bera dute ospitale pribatuek abenduaren 24ko 312/996 Dekretua dela bide.

Bestalde, 33/2011 Legearen, Osasun Publikoari buruzkoaren arabera, osasun-agintaritzek informazioa bildu ahal dute interesdunen adostasunik gabe, arrazoi epidemiologikoengatik eta osasun publikoa babesteko. Gainera, zentro pribatuek ere informazio hori osasun-agintaritza eskudunari igorri behar diotela xedatzen da.

Ulertu behar dugu zentro pribatu horiek legimititatea dutela datu horiek guri komunikatzeko, 33/2011 Legearen 41. artikuluan ezarritako legeko eginbeharra oinarri hartuta. Eta, beraz, COVID-19an positibo gisa diagnostikatu diren pazienteen identifikazio-datuak komunikatu behar dizkigutela.

Azkenik, jakin nahiko genuke ea legitimoa izango litzatekeen datu horiek Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari komunikatu ostean Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari komunikatzea, hizpide ditugun pazienteen historia klinikoan COVID-19aren baieztapenari buruzko datua jartzeko. Ala, hori kasu bakar batean gertatuko litzatekeen, hau da, baldin eta paziente horietako bat Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zentro batera badoa osasun-laguntza jasotzera, historia kliniko horietarako irispidea murriztuta dagoelako azaroaren 14ko 41/2002 Legearen 16. artikulua arabera, ulertuta Osakidetza ez dela osasun-agintaritza».



II

DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN ESKU-HARTZEA

Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren 17.1 artikuluko n) apartatuak honako eginkizun hau esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

«Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea».

Beraz, araudia kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.

III

KONTUAN HARTZEKOAK

SARS-CoV-2ak (COVID-19) sorrarazitako osasun-krisiarengatik, OMEk 2020ko martxoaren 11n pandemia deklaratu zuen horregatik, alarma-egoera deklaratu zen, eta herritarren ongizatea, osasuna eta segurtasuna babesteko eta gaixotasunaren bilakaerari eusteko neurriak hartu ziren. Neurri horietako bat da SND/344/2020 Agindua, apirilaren 13koa, zeinaren bidez salbuespen neurriak ezartzen baitira Osasun Sistema Nazionala indartzeko eta COVID-19ak eragindako osasun krisiari eusteko. Agindu horren arabera, titulartasun pribatuko diagnostiko klinikoko osasun-arloko zentro, zerbitzu eta establezimenduek prest egon behar dute lehendik dauden diagnostikoko zirkuituetan sartzeko edo zirkuitu horiek sendotzeko eta diagnostikatutako COVID-19 kasuak autonomia-erkidegoko osasun-agintaritza-eskudunari jakinarazteko.

IV

OSASUNARI BURUZKO DATUAK KOMUNIKATZEA

Kontsulta honetan ebatzi behar da ea datuak babesteko araudiaren arabera egokiak diren bi motatako datu-tratamendu hauek:

- 1.- Diagnostikoko zentro pribatuek COVID-19an positibo gisa diagnostikatu diren pazienteen identifikazio-datuak komunikatzea Osasun Sailari.
- 2.- Osasun Sailak datu horiek Osakidetzari komunikatzea, COVID-19aren baieztapenari buruzko datua pazienteen historia klinikoan sartzeko.

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2016KO APIRILAREN 27KO (EB) 2016/679 ERREGELAMENDUAK, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duenak (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), 4.15 artikuluan, osasunari buruzko datuak honela definitzen ditu: *«pertsona fisiko baten osasun*



fisikoari edo mentalari buruzko datu pertsonalak, osasun-arretaren prestazioa barne, haren osasun-egoeraren gaineko informazioa jakinarazten dutenak».

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean kontuan hartzekoen artean 35.ak honako hau ezartzen du: «Osasunarekin lotutako datu pertsonalen artean sartu behar dira interesdunaren iraganeko, oraingo edo etorkizuneko osasun fisikoaren zein mentalaren egoerari buruzko informazioa ematen duten datu guztiak. Horrek honako hauek hartzen ditu barne: osasun-laguntza emateko inskribatzean edo hura ematean pertsona fisikoari buruz bildu den informazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/24/EB Zuzentarauaren arabera; pertsona fisiko bati esleitutako edozein zenbaki, sinbolo edo datu, baldin eta horrek era unibokoan identifikatzen badu osasun-zerbitzuei dagokienez; gorputzaren atalen baten edo gorputzeko substantziaren baten probak edo azterketak egitetik ateratako informazioa, datu genetikoetatik eta lagin biologikoetatik ateratakoa barne; eta beste edozein informazio, baldin eta lotura badauka, esaterako, interesdunaren gaixotasunen batekin, desgaitasunen batekin, gaixotasunak izateko arriskuarekin, historia medikoarekin, tratamendu klinikoarekin edo egoera fisiologiko edo biomedikoarekin, edozein iturritatik datorrela ere (adibidez, mediku batengandik edo beste osasun-profesional batengandik, ospitale batetik, gailu mediko batetik edo in vitro egindako proba diagnostiko batetik)».

Ikusten dugunez, Erregelamenduak osasunari buruzko datuen kontzeptu oso zabala ezartzen du, eta berariazko araubidea esleitzen dio, testu arauemailearen 9. artikuluan aipatzen diren «datu-kategoria bereziak» izenekoiei dagokiena, alegia.

Erregelamendu Orokorren 9. artikulua, 1. apartatua datu horien tratamendurako debeku orokorra ezarri ostean, 2. apartatua, salbuespen batzuk ezartzen ditu, zeinetan datuen tratamendua posiblea baita, honako inguruabar hauetako bat gertatzen bada:

a) interesdunak berak berariaz baimena eman badu datu pertsonal horiek tratatzeko, adierazitako xedeetako bati edo gehiagori begira; salbuespena izango da Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideak ezartzen badu interesdunak ezin duela kendu 1. zenbakian aipatzen den debekua;

b) tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunak edo interesdunak lan-zuzenbidearen eta segurtasun eta babes sozialaren alorrean dituen betebeharrak konplitzeko eta eskubide espezifikoak egikaritzeko, horrela baimentzen duen neurrian Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideak edo interesdunaren oinarritzko eskubideak eta interesak errespetatzeko berme egokiak ezartzen dituen eta estatu kideetako zuzenbidearekin bat datorren hitzarmen kolektibo batek;

c) tratamendua beharrezkoa bada interesdunaren edo beste pertsona fisiko baten bizi-interesak babesteko, baina interesdunak gaitasunik ez badu adostasuna emateko arrazoi fisiko zein juridikoen ondorioz;

g) tratamendua beharrezkoa bada funtsezko interes publiko berezi bati buruzko arrazoiak direla medio, Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean oinarri hartuta, zeinak proportzionala izan behar baitu bilatzen den helburuarekin; datu-babeserako eskubidearen muina errespetatu behar baitu, eta neurri egokiak eta espezifikoak ezarri behar baititu interesdunaren funtsezko interesak eta eskubideak babesteko;

h) tratamendua beharrezkoa bada prebentzio-medikuntzaren edo laneko medikuntzaren helburuetarako, langilearen lan-gaitasuna ebaluatzeko, diagnostiko medikorako, laguntza edo tratamendu sanitario edo soziala emateko, edo laguntza sanitario eta sozialerako sistemak eta zerbitzuak kudeatzeko, Batasuneko edo estatu



kideetako zuzenbidean oinarri hartuta edo osasungintzako profesional batekin hitzartutako kontratu baten indarrez, eta ezertan eragotzi gabe 3. zenbakian jasotako baldintzak eta bermeak;

i) tratamendua beharrezkoa bada osasun publikoaren alorreko interes publikoari buruzko arrazoiak direla medio (esate baterako, osasunaren aurkako mugaz gaindiko mehatxuetatik babestea, edo osasun-laguntzaren eta medikamentu edo osasun-produktuen kalitate-maila altua bermatzea), Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean oinarri hartuta, zeinak neurri egokiak eta espezifikoak ezarri behar baititu interesdunaren funtsezko eskubide eta askatasunak babesteko, sekretu profesionala bereziki,

j) tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean artxibatzeari begira, edo ikerketa zientifiko edo historikoari edo estatistikari begira, 89.1 artikularekin bat, Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean oinarri hartuta, zeinak proportzionala izan behar baitu bilatzen den helburuarekin, datu-babeserako eskubidearen muina errespetatu behar baitu eta neurri egokiak eta espezifikoak ezarri behar baititu interesdunaren funtsezko interesak eta eskubideak babesteko».

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak osasunari buruzko datuak ukituen adostasunik gabe tratatzeko legimititatea ematen du hainbat kasutan, besteak beste osasun publikoaren eremuan interes publikoko arrazoiak daudenean, adibidez osasunerako mugaz gaindiko mehatxuen aurkako babesa, funtsezko interes publikoko arrazoiak, edo berebiziko interesa.

Horren haritik, nabarmentzekoa da Erregelamendu Orokorrean kontuan hartzekoen arteko 46.a, honako hau dioena: «*Datu pertsonalen tratamendua legezkotzat jo behar da, halaber, interesdunaren edo beste pertsona fisiko baten bizitzako funtsezko interesen bat babesteko beharrezkoa denean. Datu pertsonalak, printzipioz, tratamendua beste oinarri juridikoren batean funtsatu ezin denean baino ez dira tratatu behar beste pertsona fisiko baten interes nagusia oinarrituta. Tratamendu mota batzuek interes publikoko arrazoi garrantzitsuei zein interesdunaren interes nagusiari erantzun diezaiekete, hala nola tratamendua helburu humanitarioetarako beharrezkoa denean, epidemiak eta haiek hedatzea kontrolatzea barne, edo larrialdi humanitarioko egoeretan, batez ere hondamendi naturaletan edo giza jatorriko hondamendietan.*

Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoak, berriz, hamazazpigarren xedapen gehigarrian osasunari buruzko datuen tratamenduak aztertzen ditu, honela:

«Hamazazpigarren xedapen gehigarria. Osasunari buruzko datuen tratamenduak.

1. Osasunarekin zerikusia duten datuen eta datu genetikoaren tratamenduak (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 9.2 artikuluko g), h), i) eta j) letretan daude babestuta; hain zuzen ere, lege hauetan eta haiek garatzeko xedapenetan arautzen direnak:

a) 14/1986 Lege Orokorra, apirilaren 25ekoa, Osasunarena.

b) 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.

c) 41/2002 Oinarrizko Legea, azaroaren 14koa, Informazio eta dokumentazio klinikoaren arloan pazientearen autonomia eta eskubideak eta betebeharrak arautzen dituena.

d) 16/2003 Legea, maiatzaren 28koa, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzkoa.



- e) 44/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Osasun arloko Lanbideak Antolatzeari buruzkoa.
- f) 14/2007 Legea, uztailaren 3koa, Ikerkuntza Biomedikoari buruzkoa.
- g) 33/2011 Lege Orokorra, urriaren 4koa, Osasun Publikoari buruzkoa.
- h) 20/2015 Legea, uztailaren 14koa, Aseguru- eta Berraseguru-entitateen Antolamendu, Gainbegiraketa eta Kaudimenarena.
- i) Uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako 105 sendagaien eta osasun-produktuen bermeen eta erabilera zentzuzkoaren Legearen testu bategina.
- j) Azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina.»

2. Irizpide hauek gidatuko dute osasun-ikerketako datuen tratamendua:

- a) Interesdunak edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak bere adostasuna eman ahalko du bere datuak osasun-ikerketako helburuetarako eta, bereziki, ikerketa biomedikorako erabil daitezzen. Helburu horiek espezialitate mediko edo ikerkuntzako jakin bati lotuta dauden arlo orokorrekin erlazionatutako kategoriak besarkatu ahalko dituzte.
- b) Osasun-agintaritzek eta osasun publikoaren zaintzaren eskumenak dituzten erakunde publikoek ez dute ukituen baimenik beharko azterlan zientifikoak egiteko, osasun publikoaren aldetik egoera bereziki larria eta garrantzitsua bada.
- c) Osasunaren eta biomedikuntzaren arloko ikerketan datu pertsonalak berrerabiltzea zilegi eta bateragarritzat joko da baldin, behin helburu jakin baterako adostasuna lortuz gero, datuok erabiltzen badira hasierako azterlana zientifikoki sustraituta dagoen arloarekin erlazionatuta dauden helburuetarako edo ikerketa-arloetarako.

Kasu horietan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamenduak (pertsona fisikoak babesteari buruzko erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez) 13. artikuluan xedatutako informazioa argitaratu beharko dute arduradunek, ikerketa edo azterlan klinikoa egiten den zentroaren web-orri korporatiboan, erraz ikusteko moduko toki batean, eta, hala badagokio, baita sustatzailearenean ere, eta informazio horren berri eman beharko diete ukituei, bide elektronikoan bitartez. Ukituek ez badute informazio hori eskuratzeko moduko bitartekorik, beste formaturen batean bidaltzeko eskatu ahal izango dute.

Letra honetan adierazitako tratamenduetarako, aurrez ikerketarako etika-batzordearen aldeko txostena eskatu beharko da.

- d) Zilegi da datu pertsonal seudonimizatuak osasun-ikerketako helburuetarako eta, bereziki, ikerketa biomedikorako erabiltzea.

Datu pertsonal seudonimizatuak osasun publikoko ikerketarako eta ikerketa biomedikorako erabili ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:

1.a Banaketa tekniko eta funtzionala, ikertzaile-taldearen eta seudonimizazioa egiten eta berridentifikazioa posible egiten duen informazioa kontserbatzen dutenen artean.

2.a Datu seudonimizatuak egoera hauetan baino ez egotea ikertzaile-taldearen eskura:

- i) Konfidentzialtasuna gordetzeko eta berridentifikatze-jarduerarik ez egiteko berariazko konpromisoa dagoenean.



ii) *Segurtasun-neurri espezifikoak daudenean, berridentifikazioa eta baimenik ez duten hirugarren batzuen irispidea eragozteko.*

Datuak jatorrian berridentifikatzeari ekin dakioke, ikusten bada, datu seudonimizatuak darabiltzan ikerketa bat dela-eta, benetako arrisku zehatz bat dagoela pertsona baten edo pertsona multzo baten segurtasunarentzat edo osasunarentzat, edo mehatxu larri bat dagoela haien eskubideentzat, edo beharrezkoa dela osasun-asistentzia egoki bat bermatzeko.

e) *Datu pertsonalak osasun-ikerketako helburuetarako eta, bereziki, ikerketa biomedikorako erabiltzen direnean, (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 89.2 artikulua onoretarako, erregelamendu horren 15., 16., 18. eta 21. artikuluetan jasotako ukituen eskabideak kasu hauetan salbuetsi ahalko dira:*

1.a *Eskubide horiek datu anonimizatuak edo seudonimizatuak darabiltzaten ikertzaileen edo ikerketa-zentroen aurrean zuzenean egikaritzen direnean.*

2.a *Eskubide horiek egikaritzeak lotura duenean ikerketaren emaitzarekin.*

3.a *Ikerketaren helburua oinarritzen denean Estatuaren segurtasunarekin, defentsarekin, segurtasun publikoarekin edo interes publiko orokorreko beste helburu batzuekin lotura duen funtsezko interes publiko batean, baldin eta, azken kasu horretan, salbuespena espresuki jasota badago lege mailako arau batean.*

f) (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 89. artikulua arabera, tratamendu bat egiten bada osasun publikoko ikerketaren helburuetarako eta, bereziki, ikerketa biomedikorako, zeregin hauek bete beharko dira:

1.a *Tratamenduaren ondorioz sor daitezkeen arriskuak zehaztuko dituen inpaktuaren ebaluazioa, (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 35. artikulua adierazitako kasuetan edo kontrol-agintaritzak ezarritako kasuetan. Ebaluazioak modu espezifikoa jasoko ditu datuen anonimizazioak edo seudonimizazioak ekar ditzakeen berridentifikazio-arriskuak.*

2.a *Ikerketa zientifikoa jardunbide kliniko egokiei buruzko kalitate-arauen mende jartzea eta, hala badagokio, nazioarteko jarraibideen mende.*

3.a *Hala behar izanez gero, neurri egokiak jartzea bermatzeko ikertzaileek ez dutela irispiderik interesdunen identifikazio-datuetara.*

4.a *Europar Batasunean kokatuta dagoen legezko ordezkari bat izendatzea, (EB) 536/2014 Erregelamenduaren 74. artikulua arabera, saiakuntza kliniko baten sustatzailea Europar Batasunean kokatua ez badago. Legezko ordezkari hori (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 27.1 artikuluan adierazitako bera izan daiteke.*

g) *Datu pertsonal seudonimizatuak osasun publikoko ikerketarako eta, bereziki, ikerketa biomedikorako erabili ahal izateko, aurrez araudi sektorialeko ikerketarako etika-batzordearen txostena beharko da.*

Batzorde hori ez badago, datuak babesteko ordezkariaren alde aurretiko txostena eskatuko du ikerketaz arduratzen den entitateak, edo, halakorik ezean, (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 37.5 artikuluan adierazitako jakintzak dituen aditu baten txostena.

h) *Lege hau indarrean jarri eta urtebeteko epean, osasunaren, biomedikuntzaren edo medikamentuen alorretako ikerketarako etika-batzordeek datuak babesteko ordezkari bat txertatu behar dute beren kideen artean, edo, halakorik ezean, (EB) 2016/679 Erregelamenduaren gaineko ezagutza nahikoa duen aditu bat, datu pertsonalen edo*



datu seudonimizatu edo anonimizatuen tratamendua dakarten jardueri ekiten dietenean».

Nabarmentzekoa da, halaber, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Legeak, azken xedapenetatik bosgarrenean eta bederatzigarrenean, hurrenez hurren, osasun-arloko bi arau aldatzen dituela: Osasunari buruzko Lege Orokorra, zeinari 105.bis artikulua gehitu baitio (Osasun-ikerketako datuen tratamendua), eta pazientearen autonomiari eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharreri buruzko Legea, zeinaren 16. artikuluko 3. apartatua –historia klinikoaren erabilerak– aldatzen baita.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Legearen ostean, arloko legeria aztertuz, pandemiaren aurkako borrokan osasunari buruzko datuen tratamendua egiteko lege-gaikuntzak aurki ditzakegu:

- 3/1986 Lege Organikoa, apirilaren 14koa, Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziei buruzkoa (lehenengo artikulua eta hirugarrena).
- 33/2011 Lege Orokorra, urriaren 4koa, Osasun Publikoari buruzkoa (9, 12, 13, 40, eta 41. artikulua).
- 41/2002 Legea, azaroaren 14koa, Pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen (16.3 artikulua, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Legearen azken xedapenetatik bederatzigarrenak eta urriaren 4ko 33/2011 Legearen azken xedapenetatik hirugarrenak emandako idazkeran).
- 14/1986 Lege Orokorra, apirilaren 25ekoa, Osasunarena (8.1, 23. eta 26. artikulua).
- 16/2003 Legea, maiatzaren 28koa, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzkoa (53. eta 56. artikulua).
- 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena (3. artikulua).

Azaldu denaren arabera, honako hau ondoriozta dezakegu: gaur egungo egoeran, mundu osoko pandemia batekin, babestu beharreko funtsezko balioak dira biztanleriaren bizitza eta osasuna; bada, egoera horretan, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Legeak, aipatu diren arloko legeekin batera, osasunari buruzko datuen tratamendurako legitimitatea ematen dute, ukituen adostasunik gabe, xede horiek betetzeko; nolanahi ere, datuak babesteko araudiak eskatzen dituen printzipio eta bermeak bete behar dira.

Alde horretatik, eta egindako kontsultaren harira itzultzearen, gure iritziz, 3/1986 apirilaren 14ko Lege Organikoa, Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziei buruzkoa eta urriaren 4ko 33/2011 Lege Orokorra, Osasun Publikoari buruzkoa, eta lege horiek garatzeko estatuko nahiz autonomia-erkidegoko araudiak, nahikoa lege-gaikuntza ematen dute diagnostikoko zentro pribatuek Osasun Sailari COVID-19an positibo gisa diagnostikatu diren pazienteen identifikazio-datuak komunikatzeko.

Era berean, gure iritziz, erabat legezkoa da Osasun Sailak datu horiek Osakidetza komunikatzea, COVID-19aren baieztapenari buruzko datua pazienteen historia klinikoan sartzeko.



Konstituzioan herritar guztiek osasun babesaren eskubidea dutela aitortzen da (Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua). Eskubide hori egikaritzeko, botere publikoek beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dituzte hori lortze aldera.

Osasun Sailak, osasun-arloko administrazioa den aldetik, nahitaez osasun publikoa antolatu eta babestu behar du prebentzio-neurrien bidez eta beharrezko prestazioen eta zerbitzuen bidez, eta bere jarduera guztian xede izan behar du biztanleriaren osasuna sustatzea eta osasun-laguntza bermatzea, osasuna galtzen den kasu guztietan (Osasunari buruzko Lege Orokorraren 6. artikulua eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen, Euskadiko Osasun Antolamenduari buruzkoaren 3. artikulua). Hain zuzen ere, osasun-laguntza hori bermatzeko sortu zen Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua, eta alde horretatik, historia klinikoaren pazienteari laguntza egokia bermatzeko xedea duen tresna da (Pazienteari Autonomiari buruzko Legearen 16. artikulua eta martxoaren 38/2012 Dekretuaren, historia klinikoari eta osasun-arloko paziente eta profesionalen dokumentazio klinikoaren arloan dituzten eskubide eta obligazioei buruzkoaren 3.2 artikulua).

Baina aurrekoaz gain, kontuan hartu behar da honako hau: apirilaren 14ko 3/1986 Legeak, Osasun Publikoaren arloko Neurri Bereziei buruzkoak, osasun-agintaritzeari bidea ematen die salbuespenezko neurri jakin batzuk hartzeko, larrialdiko eta beharrezko osasun-arrazoiek hala eskatzen dutenean –eta bizi dugun osasun-krisia arrazoi horietako bat da–, adibidez gaixoen kontrola edo gaixo horiekin harremanetan dauden edo egon diren pertsonen kontrola, edo hurbileko ingurumenaren kontrola, eta horiez gain arrisku transmitigarriak egonez gero beharrezkotzat jotzen diren arrazoiak.

Gauden egoeran, COVID-19aren baieztapenari buruzko datua, diagnostikoko zentro pribatuak Osasun Sailari igortzen dioten hori, Osakidetzari komunikatzea pazienteen historia klinikoan sartzeko, pandemiari eusteko eta osasun publikoa laguntzaren eremuan aldetik zaintzeko, neurritzakoa eta beharrezkoa den neurria da, eta Lege horrek datuak komunikatzeko baldintza ezartzen du.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 21a